

BESTELAKO XEDAPENAK

ENPLEGU ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILA

4444

EBAZPENA, 2013ko urriaren 17koa, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusiarena. Honen bidez argitaratzen da tokiko ekintzailetza-proiektuen baitan enpresa-ideia berriak sustatzen dituzten pertsonentzako laguntzen deialdia.

2013ko urriaren 8ko bileran hartutako akordioaren bidez, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren Administrazio Kontseiluak onartu egin du enpresa-ideia berriak sustatzen dituzten pertsonentzako laguntzen deialdia, eta, Lanbideren Estatutuen 10.2 artikuluko p) idatz-zatian ezarritakoaren arabera (maiatzaren 22ko 82/2012 Dekretuak onartu zituen estatutu horiek), erakunde autonomo horretako zuzendari nagusiari dagokio deialdia argitaratzea.

Horiek horrela, hauxe

EBATZI DUT:

Lehenengoa.— Enpresa-ideia berriak sustatzen dituzten pertsonentzako laguntzen deialdia argitaratzea. Deialdi hori Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren Administrazio Kontseiluak onartu zuen, 2013ko urriaren 8an egindako bileran, eta eranskin gisa jaso dugu ebazpen honetan.

Bigarrena.— Jakinaraztea Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren Administrazio Kontseiluaren akordioak, laguntzen deialdia onartzen duenak, ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik aurrera izango dituela ondorioak.

Hirugarrena.— Jakinaraztea Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren Administrazio Kontseiluaren akordioaren, deialdia onartzen duen horrexen, aurka berraztertze-errekurtsoa jarri ahal izango dela erakunde horretan, hilabeteko epean, ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik zenbatzen hasita, edo administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri ahal izango dela Gasteizko Administrazioarekiko Auzien Epaitegian, bi hileko epean, ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik zenbatzen hasita.

Gasteizen, 2013ko urriaren 17an.

Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusia,
ADOLFO ALUSTIZA FERNÁNDEZ.

ERANSKINA

TOKIKO EKINTZAILETZA-PROIEKTUEN BAITAN ENPRESA-IDEIA BERRIAK SUSTATZEN DITUZTEN PERTSONENTZAKO LAGUNTZEN DEIALDIA.

Azken urteotan, krisi ekonomiko orokorra bizi dugu. Testuinguru horretan, dinamismo ekintzailea ezinbesteko faktore bat da hazkunde ekonomikoa eta aurrerabidea bultzatzeko eta beste enplegu- eta aberastasun-aukera batzuk sortzeko. Horregatik, premiazkoa da beren proiektuarekin konprometituta dauden pertsona ekintzaileei zuzenean eta gizartearen aldetik laguntzea, bai eta prozesu ekintzailearen fase guztietan oso-osorik laguntzea ere.

Euskal gizartea jabetzen da oso garrantzitsua dela pertsona ekintzaileak izatea. Pertsona horiek beren lan-etorkizuna diseinatzen eta sortzen dute, eta, aldi berean, enplegua sortzen dute beste pertsona batzuentzat. Proiektu horiek bide ematen dute enplegua sortzeko. Hori dela eta, ezinbestekoa da oso-osoko laguntza ematea.

Ibilbide bat da ekintzailtza. Ibilbidearen hasieran, norbaitek ideia bat izaten du, eta ideia horrek bide eman dezake negozio bat edo enpresa bat abian jartzeko, baldin eta ideia hori behar bezala aztertzen eta lantzen bada eta pertsona sustatzaileak jaso beharreko prestakuntza eta laguntza jasotzen badu. Gerora, ezinbestekoa da negozio edo enpresa hori sendotzea, enpresa-egituraren parte izan dadin.

Ibilbide horretan, oso-osoa garrantzitsua da pertsona sustatzaileari laguntza ematea lehenengo fasean; hau da, negozio-idea sortzeko, aztertzeko eta sistematikoki egituratzeko fasean. Izan ere, hori lagungarria da, batetik, ideia baliozkotzat jotzeko edo lantzeko, eta, bestetik, sustatzaileak ekintzailtzari lotutako gaitasun eta abilezia batzuk eskuratzeko, aholkuak eta laguntza emateko jardueren bidez.

Europa 2020 Estrategiak hiru lehentasun nagusi ditu, eta horietako bat da hazkunde adimentsua bultzatzea, bai eta ezagutza eta berrikuntza oinarritutako ekonomia garatzea ere. Ildo horretatik, estrategia horren ekimen esanguratsuenetako bat da laguntza emateko baldintza orokorrak eta finantziario-bideak hobetzea, ideia berritzaileak hazkundera eta enplegua sortuko duten produktu eta zerbitzu bilaka daitezen.

Hori oinarri hartuta eta 2013-2016 aldirako Enplegua Sustatzeko Programaren baitan (programa horren sei helburuetako bat da «ekintzailtzaren alde apustu egitea»), Eusko Jaurlaritzak, beronen erakunde autonomo den Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren bitartez, laguntza hori sendotu nahi du tresna berri baten bidez. Tresna berri horrek aukera emango die ekintzaileei hiru hilez beren enpresa-idea lantzen soilik aritzeko.

Horiek horrela, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusiak hala proposatuta, erakunde autonomo honen Administrazio Kontseiluak 2013ko urriaren 8an bilera egin eta onartu egin du tokiko ekintzailtza-proiektuen baitan enpresa-idea berriak sustatzen dituzten pertsonentzako laguntzen deialdia, eta xedapen hauek ezarri ditu:

1. artikulua.– Xedea.

Deialdi honen xedea da 2013ko ekitaldian pertsona ekintzaileei ematekoak diren laguntza ekonomikoak arautzea eta haien oinarriak ezartzea. Laguntza horiei esker, pertsona horiek aukera izango dute eksklusiboki aritzeko gerora bideragarritasun-plan bat gauzatzeko bide emango duen enpresa-idea bat sortzen, aztertzen eta egituratzen, prozesu horretan laguntza edo/eta tutoretza ematea helburu duten tokiko proiektuen baitan.

2. artikulua.– Baliabide ekonomikoak.

Hauxe da deialdi honen xedea betetzeko baliabide ekonomikoen guztizkoa: 300.000 euro. Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzua erakunde autonomoaren aurrekontuaren Enplegua – 32110 programaren 2013ko ordainketa-kredituari dagokio, hain zuzen ere, zenbatekoa hori.

Zenbateko hori izango da laguntzaren muga. Edonola ere, behar izanez gero, handitu egin ahal izango da, baldin eta indarreko legeriaren arabera aurrekontuetan aldaketak egitea onartzen bada. Zenbatekoa aldatuz gero, horren berri emango dugu EHAA-n, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusiaren ebazpen bidez.

3. artikulua.– Diruz lagundu daitezkeen jarduerak.

1.– Deialdi honetan, diru-laguntza jaso ahal izango dute 4. artikuluan jasotako betekizunak betetzen dituzten pertsona sustatzaileek; hain zuzen ere, deialdi honen 5. artikuluan aipatutako erakunde baten laguntza- edo/eta tutoretza-proiekturen batean parte hartzen dutenek. Edozein jarduera-arlotan enpresa-idea bat aztertzeke eta garatzeko eta horretan soilik aritzeko emango dugu diru-laguntza, hain zuzen ere.

2.– Deialdi honen babespean egiten diren jarduerak, gutxienez, hiru hilabete iraungo dute, eta 2013ko azaroaren 30a baino lehenago hasi beharko dute, ezinbestean.

4. artikulua.– Onuradunak.

1.– Deialdi honetan jasotako laguntzen onuradun izan ahalko dira baldintza hauek betetzen dituzten pertsona ekintzaileak:

a) EAEn bizi dira.

b) Langabeak dira eta enplegu-eskatzaile gisa izena emanda daude Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuan.

c) Ez dute inoiz izena eman Jarduera Ekonomikoaren gaineko Zergaren (IAE) erroldan, ez eta Langile Autonomoen Araubide Berezian ere.

d) Badute ideia bat enpresa- edo negozio-proiektu bat garatzeko jarduera-arlo batean (jarduera-arlo hori edozein izan daiteke).

e) Deialdi honetako 5. artikuluan jasotako erakunderen baten ekintzailertza-arloko aholkuak eta laguntza emateko prozesu batean daude.

2.– Laguntza hauen onuradun izateko, sustatzaileek konpromiso hauek hartu beharko dituzte:

a) Beren enpresa-idea aztertzen eta garatzen soilik arituko dira.

b) Enpresa-idea sortzeko eta garatzeko aholkuak eta laguntza ematea xede duten jarduera guztietara joan beharko dute. Deialdi honen kudeaketan parte hartzen duten erakunde kolaboratzaileek zehaztuko dituzte jarduera horiek.

3.– Zigor- eta administrazio-arloan diru-laguntza eta laguntza publikoak lortzeko aukera galtzea- rekin zigortuta dauden pertsona fisikoek ezin izango dituzte deialdi honetan jasotako laguntzak eskuratu, ez eta hartarako ezgaitzen dituen legezko debekuren baten eraginpean daudenek ere, sexu-diskriminazioaren ondoriozko debekuak barne, otsailaren 18ko 4/2005 Legeari, Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasunerakoari, jarraituz.

4.– Bestalde, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak edo haren erakunde autonomoek emandako izaera bereko laguntzen edo diru-laguntzen esparruan hasi den eta oraindik bideratzen ari den itzultzeko edo zigortzeko prozedura oro amaitzea ezinbestekoa izango da onuradunei laguntzak eta diru-laguntzak emateko eta ordaintzeko.

5. artikulua.– Erakunde kolaboratzaileak.

1.– Aurreko artikuluko baldintzak betetzen dituzten onuradunei enpresa-idea aztertzeko eta garatzeko laguntza eta tutoretza eman, Euskal Autonomia Erkidegoko udalerriek, udalerri-elkar-teen, mankomunitateek, koadrilek eta haiei lotuta edo haien mende dauden erakundeek emango diete; zehazki, Eskualdeko Enplegu Planak egiteko eta abiarazteko laguntzen deialdietan parte hartu dutenek eta Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren baimena dutenak erakunde kolaboratzaile gisa jarduteko (agindu eta akordio hauek arautzen dituzte Eskualdeko Enplegu Planak: 2012ko maiatzaren 9ko Aginduak, maiatzaren 23ko EHAA argitaratuak, eta Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren Administrazioaren Kontseiluaren Akordioak, 2012ko uztailaren 26koak, Lanbideko zuzendari nagusiaren ebazpen bidez abuztuaren 29ko EHAA argitaratuak).

2.– Edonola ere, sustatzaileei laguntza edo/eta tutoretza emateko erakunde kolaboratzaile gisa jardun ahal izateko, ezinbestekoa izango da horretarako behar adina gaitasun tekniko dutela egiaztatzea. Horren harira, baldintza hauek bete beharko dituzte:

- Gutxienez, 2 urteko esperientzia izatea pertsona ekintzaileei laguntzeko lanetan.

- Behar adina langile izatea eta langileak ondo prestatuta egotea sustatzaileei laguntzeko.

3.– Horretaz gainera, erakunde horiek arduratuko dira deialdi honetan jasotako diru-laguntzak kudeatzeaz eta ordaintzeaz.

4.– Programa honetan parte hartzeko eta erakunde kolaboratzaile izateko eskabideak 1. eranskinean jasotako eredu ofizialaren arabera aurkeztu beharko dira. Eredu hori eskuragarri egongo da <http://www.lanbide.net> webgunean, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren Zerbitzu Zentrale-tan eta Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak lurralde bakoitzean duen Enplegu Bulegoan. Halaber, 1992/30 Legearen, Herri Administrazioaren Araubideari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzkoaren, 38.4 artikuluan jasotako edozein bitartekoren bidez ere aurkeztu ahal izango dira eskabideak.

5.– Eskabidearekin batera, dokumentu hauek aurkeztu beharko dituzte:

- Ekintzailatza-proiektua. Bertan jakinarazi beharko dute, batetik, zer jarduera egingo dituzten sustatzaileekin enpresa-idea berriak sortze eta garatze aldera aholkuak eta laguntza emateko prozesuan, bai eta guztira zenbat pertsonari laguntzeko asmoa duten ere.

- Erakunde eskatzailearen ziurtagiria, laguntza-jardueretan aritzeko gaitasun teknikoari eta materialari buruzkoa, erakundeak esperientzia duela egiaztatzen duena eta jarduera horretan nor arituko diren adieraziko duena.

- Proiektuan parte hartuko duten sustatzaileak hautatzeko prozesuaren deskribapena. Prozesu horrek ezinbestean errespetatu beharko ditu publizitatearen, lehiaren eta objektibotasunaren printzipioak.

6.– Eskabideak aurkezteko epea 10 egun baliodun izango da, deialdi hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik zenbatzen hasita.

7.– Laneratzea Aktibatze Zuzendaritzak du eskabideak kudeatzeko eta bideratzeko ardura, eta Lanbideko zuzendari nagusiak du eskabideak ebazteko eskumena.

8.– Eskabideak aurkezteko epea amaitzean, eskabideak aztertu eta erakunde kolaboratzaile izateko baimena emango diegu deialdi honetan jasotako baldintzak betetzen dituzten erakundeei. Deialdi honetan deskribatutako sustatzaileentzako laguntzak finantzatzeko baliabide ekonomikoak aski ez badira erakunde kolaboratzaileek lagundu asmo dituzten pertsona guztiei diru-laguntza emateko, erakunde kolaboratzaile bakoitzak lagundu asmo duen pertsona kopurua murriztuko dugu, zenbat pertsonari lagundu asmo duten, horren arabera.

9.– Deialdi honen esparruan sustatzaileei aholku emateko erakunde kolaboratzaile gisa jarduteko eta deialdian jasotako diru-laguntzak kudeatzeko eta ordaintzeko baimena eman, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusiak emango du ebazpen bidez. Erakunde kolaboratzaileek dagokion lankidetzak hitzarmena izenpetu beharko dute (hitzarmen horretan zehaztuko dituzte hitzarmenaren alderdiak), 2. eranskinean jasotako ereduaren arabera.

Ebazpenak ebazteko eta jakinarazteko epea, gehienez ere, hilabetekoa izango da, eskabidea aurkezten den egunetik zenbatzen hasita. Epe horretan berariazko ebazpenik eman ezean, eskabidea ezetsizat joko dugu.

[Http://www.lanbide.net](http://www.lanbide.net) webgunean jakinaraziko dugu zer erakundek jaso duten baimena erakunde kolaboratzaile gisa jarduteko deialdi honetan, bai eta zenbat pertsonari lagundu ahal izango dien erakunde kolaboratzaile horietako bakoitzak ere.

6. artikulua.– Laguntzaren zenbatekoa eta ordaintzeko modua.

Enpresa-ekimenak sustatzen dituzten pertsonentzako laguntzaren zenbatekoa 1.500 euro izango da.

Laguntza eman ostean ordainduko diegu laguntza onuradunei.

7. artikulua.– Eskabideak, dokumentuak eta aurkezteko epea.

1.– Deialdi honetan jasotako laguntzak eskuratzeko eskabideak aurkeztu, 2. eranskineko eredu ofizialaren arabera aurkeztu beharko dira (eredu hori eskuragarri dago <http://www.lanbide.net> webgunean), Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren baimena duten eta sustatzaileei laguntza edo/eta tutoretza emateko lanak egiten dituzten erakundeen bidez, 5 egun baliodunen epean, laguntza-prozesua hasi eta biharamunetik zenbatzen hasita.

2.– Eskabide-orriarekin batera, dokumentu hauek aurkeztu beharko dituzte:

d) NANen fotokopia edo nortasun-datuak elektronikoki egiaztatze baimena.

c) Errolda-ziurtagiria edo erroldako datuak elektronikoki egiaztatze baimena.

c) Erakunde kolaboratzailearen ziurtagiria, egiaztatzen duena eskatzaileak parte hartuko duela pertsona ekintzaileei ideia berriak kudeatzen laguntzeko edo/eta tutoretza emateko programan. Ziurtagiri horrek jaso behar du zer jardura egin asmo duen erakunde kolaboratzaileak laguntza edo/eta tutoretza-planean.

3.– Interesdunek ez badute eskabidea behar bezala betetzen edo harekin batera ez badituzte bidaltzen 2. idatz-zatian aipatutako nahitaezko dokumentu guztiak, hauxe eskatuko diegu: hamar eguneko epean hutsegitea zuzentzeko edo nahitaezko dokumentuak aurkezteko. Halaber, jakinaraziko diegu, hori egin ezean, eskabidea ezetsi egingo dugula eta horrek azaroaren 26ko 30/1992

Legearen, Herri Administrazioaren Araubideari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzkoa-ren, 71. artikuluan ezarritako ondorioak izango dituela.

8. artikulua.– Prozedura aztertzea eta ebaztea.

1.– Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusiak du prozedura ebazteko eskumena, prozedura bideratzeko lanetan erakunde kolaboratzaileei dagozkien eginkizunak gorabehera (Laneratzeari Aktibatzearen Zuzendaritzarekin lankidetzan egingo dituzte eginkizun horiek).

2.– Ebazpenak ebazteko eta jakinarazteko epea, gehienez ere, hiru hilekoa izango da, eskabidea aurkeztu den egunetik zenbatzen hasita. Epe horretan berariazko ebazpenik eman ezean, eskabidea ezetsitatu joko dugu.

3.– Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusiaren ebazpenak administrazio-bidea amaitzen du, eta, haren aurka, aukerako berraztertze-errekurtsoa jarri ahal izango da erakunde horretan, hilabeteko epean, ebazpena jakinarazi eta biharamunetik zenbatzen hasita, edo zuzenean administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri ahal izango da, Gasteizko Administrazioarekiko Auzien Epaitegian, bi hileko epean, ebazpena jakinarazi eta biharamunetik zenbatzen hasita.

4.– Publizitatearen printzipioa betetze aldera eta laguntza emateko ebazpenen berariazko eta bana-banako jakinarazpenak gorabehera, Lanbideko zuzendari nagusiaren ebazpen bidez haxe argitaratuko dugu Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian: nori jasoko dituen deialdi honetako laguntzak, zenbat diru jasoko duten eta zer kasutan aldatu den ematekoa den laguntzaren zenbatekoa.

9. artikulua.– Laguntza justifikatzea.

Laguntza edo/eta tutoretza amaitu eta hilabeteko epean, laguntza jaso dutenek oroitidazki bat edo txosten bat aurkeztu beharko dute erakunde kolaboratzailean; zehazki, laguntza jaso duten aldiaren enpresa-proiektuaren bideragarritasuna aztertze aldera zer lan egin dituzten zehazten duen oroitidazki bat, edo, hala badagokio, proiektuaren bideragarritasunari buruzko txosten bat. Laguntza edo/eta tutoretza eman duen erakundeak izenpetu behar ditu dokumentu horiek.

10. artikulua.– Onuradunen betebeharrak.

Oro har, Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bateginaren, azaroaren 11ko 1/1997 Legegintza Dekretuaren bidez onartutakoaren, 50.2 artikuluan jasotako betebeharrak bete behar dituzte onuradunek, eta, batik bat, betebeharrak hauek:

– Justifikatu behar dute laguntza emateko eta baliatzeko bide eman duten betebeharrak eta baldintzak betetzen dituztela eta jardura egiten dutela.

– Egiaztapen- eta kontrol-jardueren mende jarri behar dute. Erakunde hauek egingo dituzte jardura horiek: erakunde kolaboratzaileak, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak, Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailak, Ogasun eta Finantza Sailaren Kontrol Ekonomikoko Bulegoak eta Herri Kontuen Euskal Epaitegiak.

– Beste edozein administrazio publiko edo erakunde publiko edo pribatu laguntzaren bat edo diru-laguntzaren bat ematen badie helburu bererako, horren berri eman beharko diote Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuari.

– Laguntza ematerakoan kontuan izan zen egoera objektibo edo subjektiboren bat aldatuz gero, horren berri eman beharko diote Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuari.

– Gertaeraren batek funtsezko eran eragiten badio diruz lagundutako jardueren xedeari edo izaerari, horren berri eman beharko diote Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuari.

– Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrek edo haren erakunde autonomoek, edo zuzenbide pribatuko erakunde publikoek eta sozietate publikoek emandako izaera bereko laguntzen edo diru-laguntzen esparruan itzultzeko edo zigortzeko prozeduraren bat hasi bada eta oraindik bideratzen ari bada, horren berri eman beharko diote Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuari.

11. artikulua.– Laguntza aldatzea.

Deialdi honetan jasotako laguntza emateko kontuan izan den edozein baldintza aldatzeak emandako laguntza aldatzea ekar dezake berekin, baldin eta onuradunak diru-laguntzen onuradun izateko deialdi honetan ezarritako gutxieneko betebeharrak betetzen baditu. Baldintza horiek aldatzeak emandako laguntzaren guztizkoa edo zati bat itzultzea badu ondorio, dagokion itzultze-prozedurari ekingo diogu.

12. artikulua.– Beste diru-laguntza edo laguntza batzuk aldi berean jasotzea.

Deialdi honetan jasotako laguntza eskuratuz gero, onuradunek ezingo dute jaso beste administrazio edo erakunde publiko edo pribatu batzuek kontzeptu eta helburu bererako ematen duten ezein laguntza, diru-laguntza edo diru-sarrera.

13. artikulua.– Ez-betetzea eta emandako laguntzak itzultzea.

1.– Deialdi honetan jasotako laguntzen onuradun izango diren pertsonen laguntza-prozesua behar baino lehenago uzten badute, Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bateginaren 53.1 artikuluan jasotako kasuren batean badaude edo deialdi honetan ezarritako baldintzaren bat betetzen ez badute, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusiak ebazpen bidez adieraziko die, hala badagokio, jasotako zenbatekoen eta laguntza eman zen unetik bertatik sortutako legezko interesen guztizkoa edo zati bat itzuli behar dutela. Horretaz gainera, egoki diren gainerako ekintzak bideratu ahal izango ditugu, abenduaren 17ko 698/1991 Dekretuan xedatutakoaren arabera (dekretu horren bidez arautzen da Euskal Autonomia Erkidegoko aurrekontu orokorren kargura ematen diren diru-laguntzen bermeen eta itzultzeen araubide orokorra).

Edozein arrazoi dela-eta onuradunek laguntza- edo/eta tutoretza-prozesua behar baino lehenago uzten badute, hauxe izango da emandako diru-laguntza itzultzeko araubidea:

– Prozesua hasi eta hilabete baino lehenago utziz gero, onuradunek jasotako diru-laguntza osoa itzuli beharko dute.

– Prozesua hasi eta bigarren hilabetea amaitu aurretik utziz gero, onuradunek 1.000 euro itzuli beharko dute.

– Prozesua hasi eta hirugarren hilabetea, hots, laguntza- edo/eta tutoretza-prozesua amaitu aurretik, utziz gero, onuradunek 500 euro itzuli beharko dute.

2.– Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusiak hasiko du diru-laguntza itzultzeko prozedura, eta horren berri emango dio onuradunari. Zehazki, ez-betetzearen zergatiak jakinaraziko dizkio, eta eskatuko dio hamabost eguneko epean egoki deritzon alegazioak edo frogagiriak aurkezteko.

3.– Alegazioak egiteko epearen barruan alegaziorik egiten ez bada edo alegazioak ezesten badira, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendariak ebazpena emango du. Diru-laguntza itzultzeko prozedura ebazteko gehienezko epea 12 hilekoa izango da.

4.— Ebazpenak ezartzen badu ez-betetzea gertatu dela eta interesdunak eskubidea galdu duela diru-laguntzaren guztizkoa edo zati bat jasotzeko, interesdunak Euskal Herriko Diruzaintza Nagusiari itzuli beharko dizkio dagozkion zenbatekoak, gehienez ere bi hileko epean, ebazpena jakinarazten denetik zenbatzen hasita. Epe hori borondatezko epetzat joko dugu.

5.— Interesdunek dirua borondatezko epean itzultzen ez badute, premiamendu-bideaz itzularazteko izapideei ekingo diegu.

14. artikulua.— Datu pertsonalen tratamendu automatizatua.

Datu Pertsonalak Babesteko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoa betetze aldera, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak bere jabetzako fitxategi batean sartuko ditu deialdi honetan araututako laguntzen eskabideetan jasotako datu pertsonalak. Fitxategi horri «Enplegu eta prestakuntzarako diru-laguntzak» deritzo, eta Enplegu eta Gizarte Gaietako sailburuak 2012ko urriaren 10eko emandako aginduaren bidez dago arautua (Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzua erakunde autonomoaren datu pertsonalen fitxategiak arautzen ditu agindu horrek).

Halaber, interesdunek eskubidea dute, legeak ezartzen duenaren arabera, datuak atzitzeko, zuzentzeko, ezerezteko eta haien aurka egiteko. Horretarako, idazki bat bidali behar dute hori adierazteko Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzura (Jose Atxotegi kalea 1, 01009 Vitoria-Gasteiz).

I. ERANSKINA

ENPRESA-IDEIA BERRIEN SUSTATZAILEAK EUSKARRITZEKO LAGUNTZEN DEIALDIAN
ERAKUNDE LAGUNTZAILE GISA PARTE HARTZEKO BAIMEN-ESKAERA

Lurralde-eremua

I.– Eskatzailearen identifikazio-datuak

Proiektua garatuko duen udala, udal-elkartea, mankomunitatea, kuadrilla, edo haiei lotutako zein haien mendeko erakundea			
Ordezkaria		IFK/IFZa	
Tel.		Faxa	
Helbidea		E-maila	

* Proiektua zenbait udalerrian garatzekoa bada, udalerri horien guztien udal-agintari gorenaren datuak adierazi behar dira.

II.– Ekintzailletza-proiektua

Erakunde eskatzaileak ekintzailletza-proiektu bat erantsi behar du, eta proiektu horretan adierazi behar ditu, gutxienez, honako informazio hauek:

- Proiektuaren deskribapena, faseak eta kronograma.
- Enpresa-ideia berriei aholkularitza eta laguntza emateko prozesu guztian ekintzaileekin egingo diren jarduketak.
- Zenbat pertsoneri laguntzea aurreikusi den.

III.– Eskabide honekin batera aurkeztu beharreko dokumentuen zerrenda

☐ Laguntza-lanak egiteko gaitasun tekniko eta materialari buruzko ziurtagiria, gutxienez 2 urteko esperientzia egiaztatzeaz gainera jarduera egiteaz arduratuko diren erakundeko langileen zerrenda barnean hartzen duena.

☐ Proiektuan parte hartuko duten sustatzaileen hautapen-prozesuaren deskribapena.

IV.– Ordezkararen sinadura

Adierazitako erakundearen/erakundeen izenean, tokiko ekintzailletza-proiektuen eremuan enpresa-ideia berrien sustatzaileak euskarritzeko laguntzen deialdi honetan sartzea eskatzen dut, erakunde laguntzaile gisa jarduteko baimena eman dakion.

.....(e)n,(e)ko(a)ren(e)an

Sinadura (izen-abizenak) eta erakundearen zigilua

II. ERANSKINA

TOKIKO EKINTZAILETZA-PROIEKTUEN EREMUAN ENPRESA-IDEIA BERRIEN
SUSTATZAILEAK EUSKARRITZEKO LAGUNTZEN DEIALDIA EGIKARITZEARREN EUSKAL
AUTONOMIA ERKIDEGOKO TOKI-ERAKUNDEEKIN ETA HAIEI LOTUTAKO ZEIN HAIEN
MENDEKO ERAKUNDEEKIN SINATZEKO LANKIDETZA-HITZARMENAREN EREDUA
(LANBIDE – EUSKAL ENPLEGU ZERBITZUAK ONARTU ZAIN)

Vitoria-Gasteizen, 2013ko (a)ren (e)an.

BILDU DIRA

Alde batetik:

Juan Maria Aburto Rique jauna, Enplegu eta Gizarte Politika sailburua, Lanbide – Euskal Enplegu Zerbitzuko (aurrerantzean Lanbide) lehendakaria den aldetik.

Bestetik, jauna/andrea, (a)ren alkate / legezko ordezkari den aldetik.

Bi aldeek hitzarmen hau sinatzeko gaitasuna eta ahalmena aitortu diote elkarri, eta horrenbestez

AZALDU DUTE

1.– Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko Administrazio Kontseiluak, 2013ko (a)ren (e)ko bilkuran hartutako erabakiaren bidez (EHAA, zenbakia), tokiko ekintzailetza-proiektuen eremuan enpresa-idea berrien sustatzaileak euskarritzeko laguntzen deialdia onartu du. Deialdi horretan, toki-erakundeek lankidetzan jardutea aurreikusi da, ekintzaileei laguntzeko eta/edo tutoretza emateko, haien enpresa-ideiaren garapen- eta azterketa-prozesuan, bai eta xede horretarako laguntzak kudeatzeko eta ordaintzeko ere. Deialdiaren 5.9 artikulua adierazten du lankidetzaren horren baldintzak ezarriko direla, hain zuzen, Lanbidek toki-erakundeari programan parte hartzeko eta aipatu jarduerak egiteko baimena eman ostean horretarako sinatuko den hitzarmenean.

2.– Lanbidek baimena eman diori, Lanbideko zuzendari nagusiaren 2013ko ... (a)ren ... (e)ko ebazpenaren bidez, erakunde laguntzaile gisa jardun dezan, ekintzaileei laguntzeko eta/edo tutoretza emateko, haien enpresa-ideiaren garapen- eta azterketa-prozesuan, aipatu deialdiaren esparruan.

3.– Deialdiaren 5.9 artikuluan xedatutakoaren arabera, eta bai Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Testu Bateginak, azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuaren bidez onartuak, 52.3 artikuluan ezarritakoaari, bai 698/1991 Dekretuak, abenduaren 17koak, 7. artikuluan xedatutakoari jarraituz, Lanbidek etak adostu dute hitzarmen hau ezartzea, dagozkien jarduketak era koordinatuan arautzeko, xedapen hauen arabera:

KLAUSULAK

Lehena.– Hitzarmenaren xedea.

Hitzarmen honen xedea da Lanbide etaren arteko lankidetzaren araubidea ezartzea, tokiko ekintzailetza-proiektuen eremuan enpresa-idea berrien sustatzaileak euskarritzeko laguntzen deialdia egikaritzeari dagokionez. Deialdi hori Lanbideko Administrazio Kontseiluak onartu zuen, 2013ko (a)ren (e)ko bilkuran hartutako erabakiaren bidez (EHAA, zenbakia), ekintzaileei enpresa-ideiaren garapen- eta azterketa-prozesuan laguntza eta/edo tutoretza ematea helburu hartuta, bai eta aipatu deialdian araututako laguntzak kudeatzeko eta ordaintzeko ere.

Bigarrena. Aldeen betebeharrak.

1.–k honako eginbide hauek bete behar ditu:

a) Ekintzaileei laguntzea eta/edo tutoretza ematea, haien negozio-idea sortzeko, aztertzeko eta garatzeko prozesuan, erakunde laguntzaileak programan parte hartzeko eskabidearekin batera aurkeztutako ekintzailetza-proiektuan planteatutako baldintzetan, Lanbideko zuzendari nagusiaren 2013ko ... (a)ren ... (e)ko ebazpenaren bidez zenbat pertsoneri arreta emateko baimena eskuratu duen aintzat hartuta.

Tokiko ekintzailetza-proiektuetako parte-hartzaileen hautaketa erakunde laguntzaileak egingo du, publizitate-, lehia- eta objektibotasun-irizpideak kontuan hartuta.

Erakunde laguntzaileak egindako hautaketa-prozesuaren egiaztagiria Lanbiden aurkeztu beharko ditu, 10 laneguneko epean, prozesua amaitutako egunetik kontatzen hasita.

b) Ekintzaileek aurkeztutako diru-laguntza eskaerak biltzea eta erregistratzea, horretarako hitzarmena sinatu badu EAEko administrazioarekin, 30/1992 Legeak, azaroaren 26koak, 38.4 artikuluan xedatutakoari jarraiki, eta bestela, Lanbiden erregistratzea.

c) Aurkeztutako eskabideak aztertzea, eskatzaileek diru-laguntzak jasotzeko betekizun eta baldintzak betetzen dituztela egiaztatzea, aurkeztu ez dituzten ezinbesteko dokumentuak eskatzea, halakorik balego, eta dagozkion ebazpen-proposamenak Lanbideko zuzendari nagusiari helaraztea.

d) Onuradunei ordainketak egitea, deialdiaren 6. artikuluan xedatutakoaren arabera.

e) Laguntzaren onuradun den sustatzaileak laguntza-prozesua bertan behera utziz gero, Lanbideri jakinaraztea. Halaber, diru-laguntza emateko ezarritako beste edozein baldintza edo betekizun, erabat edo zati batean, ez badu betetzen, eta nolanahi ere Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Testu Bateginaren 53.1 artikuluan ezarritakoa bete ezean, Lanbideri jakinaraztea, diru-laguntza osoa edo haren zati bat itzultzeko prozedura has dadin.

f) Lanbide – Euskal Enplegu Zerbitzuaren aurrean justifikatzea jasotako funtsak aplikatu direla pertsona onuradunentzako laguntzei dagozkien ordainketak egitean.

Ondorio horietarako, ordainketak egin ondoren, 15 eguneko epean ordainketa horien egiaztagiria aurkeztu beharko dizkio erakunde laguntzaileak Lanbideko Lana Aktibatze Zuzendaritzari.

g) Laguntzaren onuradun diren ekintzaileek laguntzaren justifikazio gisa aurkeztu beharreko azken memoria, enpresa-ideiaren bideragarritasuna aztertzeko prozesuan egindako jarduketei buruzkoa, berrikustea, eta, hala badagokio, baliozkotzea. Berrikusi ondoren, memoria hori Lanbidera igorri behar du erakunde laguntzaileak.

h) Programaren kudeaketa amaitu ondoren, Lanbide – Euskal Enplegu Zerbitzuari itzultzea, hala badagokio, azkenean xederako erabili ez diren funtsen zenbatekoak (uko egiteak, itzultzeak edo beste edozein arrazoi direla-eta), bai eta jasotako funtsen bankuko kontuetan sortutako interesak ere.

i) Funts horien kudeaketari dagokionez, Lanbide – Euskal Enplegu Zerbitzuak, Enplegu eta Gizarte Politika Sailak, Ogasun eta Finantza Saileko Kontrol Ekonomikoko Bulegoak eta Herri Kontuen Euskal Epaitegiak egin ditzaketen egiaztatze-jarduketan mendeak jartzea.

j) Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak emandako diru-laguntza adieraztea deialdiaren babesean diruz lagundutako jarduketan hedapena, zabalkundea edo argitaratzea dakarten jardueretan, halakorik balego.

2.– Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak honako konpromiso hauek hartzen ditu bere gain:

a) Erakunde laguntzaileari ematea hitzarmen honen ondorioz egin beharreko jarduketak gauzatzeko behar duen laguntza eta aholkularitza, Lana Aktibatze Zuzendaritzaren bidez.

b) Laguntzak emateko erabakiak eman ondoren, erakunde laguntzaileari entregatzea lagundutako ekintzaileei emandako diru-laguntzen zenbatekoa.

Horretarako, erakunde laguntzaileak banku-kontu finalista bat irekiko du, funtsak han jasotzeko; hartara, jarraipena egitea eta emandako laguntzak egiaztatzea bideratuko du. Onuradunen artean banatzeko jasotako funtsak, eta sortutako interesak, halakorik balego, ez dira inolaz ere erakundearen ondarearen zatitzat hartuko.

Hirugarrena.— Erakunde laguntzaileak ez du ordain ekonomikorik jasoko.

Laugarrena.— Hitzarmen honetan edo deialdiaren oinarri arautzaileetan aurreikusi gabeko alderdiei dagokienez, ekintzaileentzako laguntzak kudeatzeari eta ordaintzeari buruz, lankidetzara arautuko da Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Testu Bateginean, azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuaren bidez onartuan, eta 698/1991 Dekretuan, abenduaren 17koan, ezarritako xedapenen arabera.

Bosgarrena.— Hitzarmen honen indarraldia izango da soil-soilik lehen klausulan mugatutako helburua betetzeko dagokiona.

Seigarrena.— Hitzarmen honek administrazio-izaera du, eta administrazioarekiko auzien ordenaren aurrean aurkaratu ahal izango da.

3/2011 Legegintzako Errege Dekretuak, azaroaren 14koak, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen testu bategina onartzen duenak, 4.1.c artikuluan xedatutakoari jarraituz, hitzarmen hau haren aplikazio-eremutik kanpo geratzen da. Hala eta guztiz, arau subsidiarioa da, hitzarmena betetzean sor daitezkeen zalantza edo gatazkak interpretatzeari, aldatzeari eta erabakitzeari begira.

Eta adierazitako guztiarekin ados daudela egiaztatzeko, dokumentu honen bi ale sinatu dituzte bertaratuek, goiburuan adierazitako lekuan eta egunean.

LANBIDE-EUSKAL ENPLEGU ZERBITZUA.

Izpta.: Juan Maria Aburto Rique

Izpta.:

2013ko urriaren 18a, ostirala

III. ERANSKINA DIRU-SARRERA ESKAERA

TOKIKO EKINTZAILETZA-PROIEKTUEN EREMUAN ENPRESA-IDEIA BERRIEN SUSTATZAILEAK EUSKARRITZEKO LAGUNTZEN DEIALDIA

Lurralde-eremua

I.– Eskatzailearen identifikazio-datuak

Izen-abizenak		NANa	
Helbidea		Udalerrria	
Probintzia		Posta-kodea	
Tel.		E-maila	

II.– Erakunde laguntzailearen identifikazio-datuak

Erakunde laguntzailearen izena			
Titular juridikoa		IFK/IFZa	
Erakundearen egoitza		Tel.	
Udalerrria		Probintzia	
		E-maila	

III.– Eskatzaileak bete beharreko baldintzak

- ☐ EAEn bizi izatea.
- ☐ Langabea izatea eta Lanbide – Euskal Enplegu Zerbitzuan enplegu-eskatzaile gisa izena emanda egotea.
- ☐ Ekonomia-jardueren gaineko zergan eta langile autonomoen araubide berezian lehendik alta eman gabea izatea.
- ☐ Edozein jarduera-arlotan enpresa- edo negozio-proiektu bat garatzeko ideia bat izatea.
- ☐ Lanbidek baimendutako erakunde laguntzaile batek ekintzailetzari aholkularitza eta laguntza emateko sustatutako tokiko prozesu baten barruan egotea.



Markatu X batez dagokiona

IV.– Eskatzaileak bere gain hartzen dituen konpromisoak

- Arduraldi eskusiboa enpresa-ideia garatzeko eta egituratzeko zereginetan jarduteko.
- Deialdi honen kudeaketan parte hartzen duten erakunde laguntzaileek enpresa-ideia sortzeko eta garatzeko antolatutako aholkularitza- eta laguntza-jarduera guztietara joatea.

V.– Eskatzailearen adierazpen erantzulea

- ☐ Helburu eta xede bererako edozein administrazio publikok emandako laguntzarik ez duela jasotzen.
- ☐ Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak edo haren erakunde autonomoek emandako izaera bereko diru-laguntza edo laguntzaren baten ondorioz hasitako itzultze- edo zehapen-prozeduraren batean ez dagoela.
- ☐ Diru-laguntzak edo laguntza publikoak lortzeko aukera galtzea dakarren zehapen penalik edo administrazio-zehapenik ez duela izan, eta horretarako desgaitzea dakarren inolako lege-debekurik ez zaiola ezarri, sexuagatiko diskriminazioari dagozkionak ere kontuan hartuta, 4/2005 Legean, otsailaren 18koan, emakumeen eta gizonen berdintasunerakoan, adierazitakoari jarraituz.
- ☐ Eskaeran aurkeztutako dokumentu eta datuak egiazkoak direla.
- ☐ Deialdian eskatutako baldintza guztiak betetzen direla.

☒ Markatu X batez dagokiona

VI.– Eskabide honekin batera aurkeztu beharreko dokumentuen zerrenda

- ❖ Eskatzailearen NANren fotokopia, edo haren identitate-datuak elektronikoki egiaztatzeko baimena.
- ❖ Eskatzailearen errolda-agiria, edo errolda-datuak elektronikoki egiaztatzeko baimena.
- ❖ Erakunde laguntzailearen ziurtagiria, ekintzaileei ideia berriak kudeatzen laguntzeko programan eskatzaileak parte hartzen duela egiaztatzen duena.

VII.– Identitate- eta errolda-datuak elektronikoki egiaztatzeko baimena

Lanbide – Euskal Enplegu Zerbitzuari nire identitate- eta errolda-datuak elektronikoki egiaztatzeko baimena ematen diot.

BAI ☐ EZ ☐

(baimenik ematen ez bada, NANren eta errolda-agiriaren kopia konpultsatuak aurkeztu beharko dira)

VIII.– Eskatzailearen sinadura

Tokiko ekintzailetza-proiektuen esparruan enpresa-idea berrien sustatzaileak euskarritzeko laguntzen deialdi honetan sartzea eta dagokidan diru-laguntza ematea eskatzen dut.

.....(e)n,(e)ko(a)ren(e)an

Sinadura (izen-abizenak)